URKABUSTAIZKO HERRIA ANTOLATZEKO ORDEZKO ARAUETAKO IZARRAKO SUR-2KO UE-1EKO A, B ETA C ERAIKINEI APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

I. A, B ETA C ERAIKINAK ERAIKITZEKO PARAMETROAK ETA PARAMETRO URBANISTIKOAK

Solairu kopurua, gehienez: 4, behe-solairua barnean.

Etxebizitzak, gehienez: 12 eraikineko.

Eraikinetako solairuen neurriak: hiri lurzoruaren kalifikazio planoan adierazitakoak.

## HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

**5.022**

**694/2004 FORU AGINDUA, uztailaren 27koa, Arraia-Maeztuko ordezko arauen SAUI-1eko (Tellazar) plan partzialari buruzko espedientea behin betiko onartzen duena.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Udalbatzak, 2004ko apirilaren 13ko osoko bilkuran, Arraia-Maeztuko ordezko arauetako SAUI-1eko plan partziala aldatzeko espedienteari hasierako onarpena ematea erabaki zuen, baita espediente hori hamabost egun jendaurrean jartzea ere. Horretarako, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean , 2004ko maiatzaren 3koan (49. zenbakia), El Correo egunkarian, 2004ko maiatzaren 7koan, eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratu edo jarri ziren.

Bigarrena.- Jendaurrean egon zen bitartean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, udalbatzak, 2004ko ekainaren 21eko osoko bilkuran, espedienteari behin-behineko onarpena ematea eta behin betiko onar zezaten Arabako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen. Foru aldundian 2004ko ekainaren 25ean sartu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Espediente honek Arraia-Maeztuko SAUI-1eko sektorea zehatz-mehatz antolatzea du helburu. Indarrean dauden ordezko arauen arabera sektorearen sailkapena eta kalifikazioa honakoak dira: lurzoru urbanizagarria eta industriarako.

Bigarrena.- Aurkeztutako agiriak aztertu dira eta egiaztatu da, nola formari, hala edukiari, indarrean dauden hirigintza legeek xedatutakoa betetzen duela.

Hirugarrena.- Aurrekoa gorabehera, Herrilan eta Garraio Sailak txosten bat egin du. Txosten horren arabera ondokoak egin behar dira:

A- Sektoretik kanpo ateratzea A-124 errepidearen jabari publikoko ingurua.

B- A-124 errepideko sarrera honekin batera doan krokisari egokitu, abiadura aldatzeko erreiei eta gutxienezko biraketa erradioei dagokienez.

C- Errepideari paralelo joango diren zerbitzuetarako sare berrien trazadurak bereiztea, horiek errepideko zerbitzu orokorretarako lerroaren barruan egon daitezen.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- Arraia-Maeztuko udalbatzak sustatu eta izapidetu duen ordezko arauetako SAUI-1eko (Tellazar) plan partzialari buruzko espedientea behin betiko onartzea, baldin eta aldez aurretik honako moldaketa hauek egiten badira:

A- Sektoretik kanpo ateratzea A-124 errepidearen jabari publikoko ingurua.

B- A-124 errepideko sarrera honekin batera doan krokisari egokitu.

C- Errepideari paralelo joango diren zerbitzuetarako sare berrien trazadurak bereiztea, horiek errepideko zerbitzu orokorretarako lerroaren barruan egon daitezen.

Bigarren.- Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, zuzenean igorriko zaio fo-

NORMATIVA APLICABLE EN LOS EDIFICIOS A, B Y C DE LA UE 1 DE LA ZONA SUR-2 DE IZAR DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE URBANISMO

I. PARÁMETROS URBANÍSTICOS Y EDIFICATORIOS DE LOS EDIFICIOS A, B Y C

Número máximo de plantas: 4, incluida la baja.

Número máximo de viviendas: 12 viviendas en cada edificio.

Dimensiones en planta de las edificaciones: las incluidas en el plano de “Calificación Pormenorizada del suelo urbano.

## DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

**5.022**

**ORDEN FORAL 694/2004, de 27 de julio, aprobación definitiva del expediente de Plan Parcial SAUI1, Tellazar, de las Normas Subsidiarias de Arraia-Maeztu.**

ANTECEDENTES

Primero.- El Pleno municipal de 13 de abril de 2004 aprobó inicialmente el expediente de Plan Parcial del Sector SAUI-1, de las Normas Subsidiarias de Arraia-Maeztu, así como someter el expediente a información pública por el plazo de quince días, hecho que fue practicado mediante los anuncios publicados en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava número 49, de 3 de mayo de 2004, en el periódico El Correo del 7 de mayo de 2004, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el periodo de exposición pública no fue presentada ninguna alegación. En consecuencia, el Ayuntamiento procedió en su sesión del día 21 de junio de 2004, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, donde tuvo entrada el 25 de junio de 2004.

FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente se dirige a ordenar pormenorizadamente el sector SAUI1 de Arraia-Maeztu clasificado por las Normas Subsidiarias vigentes como suelo apto para urbanizar y calificado globalmente como zona industrial.

Segundo.- Una vez analizada la documentación aportada se deduce que cumple los requisitos establecidos en la legislación urbanística en vigor, tanto en lo que atañe a su contenido formal como al material.

Tercero.- No obstante lo anterior, el Departamento de Obras Públicas y Transportes ha emitido un informe del que se desprende que el documento debe ser corregido en este sentido:

A- Excluir del ámbito la Zona de Dominio Público de la carretera A-124.

B- Adecuar el acceso previsto desde la carretera A-124 al diseño del croquis adjunto, en lo que se refiere a las cuñas de cambio de velocidad desde la carretera, así como en lo relativo a los radios mínimos de giro.

C- Separar los trazados de las nuevas redes de servicios a disponer en paralelo al trazado de la carretera, de manera que las mismas se sitúen dentro de la Línea de Servicios Generales de la misma.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Plan Parcial Plan Parcial SAUI1, Tellazar, de las Normas Subsidiarias de Arraia-Maeztu, promovido y tramitado por el Ayuntamiento del citado municipio, con las siguientes modificaciones:

A- Excluir del ámbito la Zona de Dominio Público de la carretera A-124.

B- Adecuar el acceso previsto desde la carretera A-124 al diseño del croquis adjunto.

C- Separar los trazados de las nuevas redes de servicios a disponer en paralelo al trazado de la carretera, de manera que las mismas se sitúen dentro de la Línea de Servicios Generales de la misma.

Segundo.- Las modificaciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación

ru aldundiari, espedientea betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarren.- Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzea.

Laugarren.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertze-errekurtsoa (administrazioen kasuan, errekerimendua), foru agindu hau eman duen organoari. Hilabete izango da horretarako, honako hau argitaratu edo honen berri jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Denek jakin dezaten ematen da aditzera.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko uztailaren 27a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

Foral, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, 27 de julio de 2004.– El Diputado de Urbanismo y Medio Ambiente, ANTONIO AGUILAR MEDIAVILLA.

## Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**5.118**

**Diputatuen Kontseiluak 2004ko uztailaren 30eko bilkuran onartutako xedapenen laburpena.**

**- Foru Dekretuak:**

SUSTAPEN EKONOMIKO ETA BERRIKUNTZAREN KUDEAKETA SAILA

- 51/2004 Foru Dekretua, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako egitura organikoa.

LEHENDAKARITZA SAILA

- 52/2004 Foru Dekretua, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostuen zerrenda.

NEKAZARITZA SAILA

- 53/2004 Foru Dekretua, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Lurralde Historikoan 2003ko udako bero olatuak eta lehorteak ekarritako galerak gutxitzeko dirulaguntzak ematea arautzen duen araudia onartzen da.

**- Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

- 591/2004 Erabakia, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez gobernuz kanpoko zenbait erakunderi laguntzak ematen zaizkie lankidetza proiektuen zati bat finantzatzeko.

- 592/2004 Erabakia, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez “Mírame con otros ojos-Aldatu jarrera. Álava por el comercio justo” sentsibilizazio proiektua (2. fasea) zabaltzea onartzen da. Proiektu horri martxoaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren 190/2004 Erabakiaren bidez eman zitzaion dirulaguntza.

- 593/2004 Erabakia, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntzaren Kudeaketa Saileko foru diputatu Carlos Samaniego Pérez jauna proposatzen zaio Araba Garapen Agentzia SA Sozietate Publikoaren Administrazio Kontseiluari Luis Miguel Camarero Estela jauna ordezkatuz Arabako Teknologia Elkartegian aipatutako sozietate publikoaren ordezkari izan dadin.

- 594/2004 Erabakia, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen 2004ko urtarrilaren 23ko erabaki baten aurka Encarnación Barrenetxea Urquiza andreak jarritako 1001/04-2 errekurtsoan agertzea eta parte hartzea ebazten da. Erabaki horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga likidazioen (1998tik 2002 arteko ekitaldiak) aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiboa ezesten zen.

## Anuncios

### SECRETARÍA GENERAL

**5.118**

**Extracto de las disposiciones aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el 30 de julio de 2004.**

**- Decretos Forales:**

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y GESTIÓN DE LA INNOVACIÓN

- Decreto Foral 51/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que modifica parcialmente la estructura orgánica del Departamento de Promoción Económica y Gestión de la Innovación relativa a la Dirección de Servicios Generales.

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA

- Decreto Foral 52/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que modifica de la Relación de Puestos de Trabajo reservados a funcionarios de carrera y personal eventual de la Administración General de la Diputación Foral de Álava.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA

- Decreto Foral 53/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que aprueba la normativa reguladora para la concesión de ayudas para paliar las pérdidas ocasionadas por la ola de calor y la sequía habidas en el año 2003 en el Territorio Histórico de Álava.

**- Acuerdos:**

DEPARTAMENTO DE DIPUTADO GENERAL

- Acuerdo 591/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que concede ayudas a diversas Organizaciones o Instituciones no gubernamentales para la cofinanciación de proyectos de cooperación reformulados.

- Acuerdo 592/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que aprueba la ampliación el Proyecto de Sensibilización “Mírame con otros ojos-Aldatu jarrera. Álava por el comercio justo”, (2ª fase), subvencionado por Acuerdo del Consejo de Diputados 190/2004, de 16 de marzo.

- Acuerdo 593/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que propone al Consejo de Administración de la Sociedad Pública “Álava Agencia de Desarrollo, S.A.” a don Carlos Samaniego Pérez, Diputado Foral de Promoción Económica y Gestión de la Innovación, como persona física que represente a la referida Sociedad en la Sociedad “Parque Tecnológico de Álava, S.A.”, en sustitución de don Luis Miguel Camarero Estela.

- Acuerdo 594/2004, del Consejo de Diputados de 30 de julio, que resuelve comparecer y mostrarse parte en el recurso 1001/04-2 interpuesto por doña Encarnación Barrenetxea Urquiza contra acuerdo del Organismo Jurídico Administrativo de Álava de 23-1-2004 desestimatorio de la reclamación económico-administrativa formulada contra liquidaciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, ejercicios 1998 a 2002.